

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN**71/2020 TXOSTENA****Espediente tramitatzaileria:** Langileria saila**Gaia:** Bermeoko Udaleko langileen ordutegia eta presentzia kontrolatzeko sistemaren funtzionamendurako barne araudia.**Espediente zenbakia:** IDA_ERA_0183 (2020)**Txostenaren oinarria:** Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.d.1 artikulua**Aurrekariak**

Lehena.- 2020ko urriaren 1ean negoziazio mahaian Bermeoko Udaleko langileen ordutegia eta presentzia kontrolatzeko sistemaren funtzionamendurako barne araudia negoziatu zen.

Bigarrena.- 2020ko urriaren 1ean langileria teknikariak Bermeoko Udaleko langileen ordutegia eta presentzia kontrolatzeko sistemaren funtzionamendurako barne araudia onartzeko erabaki proposamena egin du.

Hirugarrena.- 2020ko azaroaren 20an langileria teknikariak prozedurari buruzko hainbat gaien justifikazio txostena egin du.

Oinarri juridikoak**1. Aplikagarria den araudia**

- Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duena (TREBEP)

- Uztailaren 6ko 6/1989 Euskal Funtzio Publikoaren Legea (LFPV)

- Bermeoko Udalaren zerbitzura ari diren langileen Lan Baldintzak Arautzen dituen akordioa: Udalhitz

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen (4.1.a, 22.2.d, 25, 49, 65.2, 70.2 artikulua)



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 23/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/11/2020
10:41:43

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0183
Data: 01/10/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E4000559B30016X3M1Z6H1J9

- 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, Toki erakundeen zerbitzuen araudia onartzen duena (23-29 artikulua)

- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Toki erakundeen lege xedapenen Testu Bateratua onartzen duena. (56 artikulua)

- Urriaren 1eko 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen Legea (128,129 eta 133 artikulua)

2. Azterketa juridikoa

A) Oinarrizko kontzeptuak

Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituen 7/1985 Legeak 4.1.a artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedimendu Erkidearen 39/2015 Legearen 128.artikuluan aitortzen da udalek duten eskumena araudiak egiteko eta autoorganizatorako. Hori horrela, Bermeoko Udalak bere eskumenen inguruan legeek ezarritakoa garatu dezake izaera orokorreko xedapen administratiboen bitartez, zeintzuk beti legea errespetatu behar duten.

Bermeoko Udalaren zerbitzura ari diren langileen Lan Baldintzak Arazten dituen akordioaren 21. artikulua, aukera ematen du zerbitzu jakin batzuetako ordutegian malgutasun handiagoa izateko neurri batzuk adosteko langileen ordezkariarekin, baldin eta zerbitzu horien kalitatea ez bada txikitzen eta beharrezko kudeaketa eta kontrol tresnak bidera badaitezke. Era berean, Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34.8 artikulua.

Horretaz gain, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 47. eta 51. artikuluetan ezarritakoarekin bat Administrazio publikoek eskumena dute beren zerbitzuko langileen lan denboraren antolamendua ezartzeko.

Are gehiago, martxoaren 8ko 8/2019 Errege Lege Dekretuaren ostean, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 34. 9. artikulua lanaldi-erregistroa jaso du. Betebehar hori Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 54.2 artikuluan jasotzen da, eta arauhorren 14.j) artikuluan (lana eta familia bateragarri egiteko eskubidea) aitortutako



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/11/2020
10:41:43

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0183
Data: 01/10/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.
Kodea:
07E4000559B30016X3M1Z6H1J9



eskubidea gauzatzea ahalbideratuko duten hobekuntzen barruan kokatu behar da, lan-denbora malgutasunez betetzea ahalbideratuz.

Hori horrela, egoki ikusten da Bermeoko Udaleko langileen ordutegia eta presentzia kontrolatzeko sistemaren funtzionamendurako barne araudia onartzea.

Araudia onartzeko nahitaez 39/2015 Legearen 129.artikuluaren ezartzen diren printzipioak errespetatu behar dira espediente guztian zehar, hau da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak.

Kuantifikatu eta balioetsi behar dira araudiaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

B) Jarraitu beharreko prozedura

39/2015 Legearen 49. eta 133. artikulua eta 7/1985 Legearen 70. artikulua kontuan hartuta prozedura hurrengoa izan behar da:

a) Araudiaren aldaketa udalaren urteko plangintzan aurreikusita egon behar da (39/2015 legearen 132art).

Urteko plangintzan aurreikusita ez dagoenez, langileria saileko teknikariak 2020ko azaroaren 20an justifikatu du zergatik onartu behar den. Hori guztia toki erakundeetara ekarri azaroaren 27ko 50/1997 Gobernuko Legearen 25.3. artikulua.

b) Langileria Saileko teknikari ardundunak Bermeoko Udaleko langileen ordutegia eta presentzia kontrolatzeko sistemaren funtzionamendurako barne araudia onartzeko beharrezana justifikatu du eta beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak betetzen direla, 129.artikuluaren arabera.

c) TREBEPeko 37.m paragrafoaren arabera Negoziazio mahaian negoziatu behar da eta 2020ko urriaren 1ean egin zen.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/11/2020
10:41:43

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0183
Data: 01/10/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E4000559B30016X3M1Z6H1J9



d) Hala dagokionean, araudiaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Bermeoko Udalaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- ◆ Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- ◆ Arau hori onestea beharrezko eta egoki den
- ◆ Arauaren helburuak.
- ◆ Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Dena den, Legeak 129.4 artikuluan salbuespen moduan aurreikusten du besteak beste, edo organizaziorako araudi bat izatea, edo eragin ekonomiko handirik ez izatea, edo hartzaileengan derrigortasun handirik ez ekartzea

Beraz, kasu honetan justifikatuta aurreko paragrafoan zehaztutako kasuren batean gaudenez aurretiazko kontsultaren salbuespena aplikatu daitezke nahiz eta komenigarria izan burutzea.

e) Saileko teknikari arduradunak Bermeoko Udaleko langileen ordutegia eta presentzia kontrolatzeko sistemaren funtzionamendurako barne araudia onartzeko erabaki proposamena egingo du eta edukiaren aldetik legezkoa izan behar da.

Erabaki proposamena egin da eta zuzena da.

f) Kontuhartzaileak txostena egin beharko du kuantifikatzeko eta balioesteko ordenantzaren eragin eta erreperkuzioak, baldin eta gastu eta sarrerak suposatzen baditu, bai gaur egun, bai etorkizunean. Hori guztia aurrekontuaren egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren printzipioak betetzeko.

Langileria saileko teknikariak 2020ko azaroaren 20an esan duenez, kasu honetan araudia onartzeak ez du gastu gehigarririk suposatuko; beraz, ez da beharrezkoa kontuhartzailearen txostena.

g) Idazkari nagusiak txostena egin beharko du.

Behin idazkariaren aldeko txostena izanda hurrengo pausuak eman beharko dira:



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 23/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/11/2020
10:41:43

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0183
Data: 01/10/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E4000559B30016X3M1Z6H1J9



h) Informazio batzordeak erabaki proposamenaren irizpena eman beharko du.

i) Osoko bilkuraren araudia hasieraz onartuko du, gehiengo soilez, 7/1985 Legearen 22.2.d eta 47. artikuluekin bat etorriz.

j) Informazio publikoa eta entzunaldia gauzatuko dira, interesdunek 30 eguneko epean erreklamazio edo iradokizunak aurkezteko. Hasierako onarpena webgunean, edikuen taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

k) Araudiak pertsonen eskubide eta interes legitimoei eragiten dienez, Udalak webgunean argitaratuko du testua, ukitutako langileei entzunaldia emateko eta beste pertsona eta entitate batzuek egin ditzaketan ekarpen gehigarriak jasotzeko. Era berean, zuzenean eska dakieke iritzia arauaren eraginez beren eskubide edo interes legitimoak ukitzen zaizkien pertsonak biltzen edo ordezkatzan dituzten eta beren helburuak arauaren xedearekin zerikusi zuzena duten antolakunde edo elkarte legez aitortuei. Beraz, sindikatuei entzunaldia eman beharko zaie.

Legeak ez diosku entzunaldi hori noiz burutu behar den. Hala ere, praktikan egoki ikusten da Osoko Bilkuraren kontsulta publiko eta entzunaldien gidalerroen inguruan hartutako akordioa eraldatzea eta entzunaldi hori informazio publikoaren fasearekin batera egitea, proportzionaltasuna, efikazia eta efizientzia handiagoa bermatzeko; eta, beti ere, herritarren eta elkarten eskubideak erabat errespetatuta.

l) Osoko Bilkurak aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak ebatzea eta behin betikoz ordenantza onartzea.

Hasierako onarpenean ezarri daiteke erreklamaziorik izan ezean Bermeoko Udaleko langileen ordutegia eta presentzia kontrolatzeko sistemaren funtzionamendurako barne araudia automatikoki behin betikoz onartuta egongo dela, baina horretarako arduradunaren txostenean oinarritutako idazkariaren ziurtagiria beharko da alegaziorik egon ez direla egiaztatuz.

m) Erabakia eta ordenantzaren testu osoa argitaratu beharko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bermeoko Udaleko gardentasun atalean eta ediktuen taulan eta indarrean sartuko da BAO n argitaratu eta 15 egun igarota, 7/1985 Legearen 65.2 artikulua araberan.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/11/2020
10:41:43

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0183

Data: 01/10/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Agiri hau benetakoa dala udalaren
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal
dozu.

Kodea:

07E4000559B30016X3M1Z6H1J9



Ondorioak


Momentu honetara arte jarraitutako prozedura zuzena da, beharrezana, efikazia, proportzionaltasuna, gardentasuna eta efizientzia printzipioak errespetatu baitira; beraz, Bermeoko Udaleko langileen ordutegia eta presentzia kontrolatzeko sistemaren funtzionamendurako barne araudia onartzeko proposamenari **aldeko txostena** egiten zaio.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Osoko Bilkurak egoki deritzona erabakiko du.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J

 <p>STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI</p>	<p>Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.</p> <p>Kodea: 07E4000559B30016X3M1Z6H1J9</p>	<p>Sinadurea eta data</p> <p>JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAIZKARI NAGUSIA - 23/11/2020 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/11/2020 10:41:43</p>	<p>EXPEDIENTE :: 2020IDA_ERA_0183</p> <p>Fecha: 01/10/2020</p> <p>Lekua: Bermeon</p> <p>Erregistro unidatea: Erregistro nagusia</p>
---	--	---	---

